

Diskoak

IKER BARANDIARAN

Punk-rock klasikoak, guztia aurrez aurre



Sueños podridos.
Sutura.
Baga Biga.
Iraupena: 44'01".
11 euro.

TRINTXERPEKO Sutura punk taldeak urte dezente daramatza 1980ko hamarkadako punk klasikoena ezagutzera ematen. Beraiek aitortutako moduan punka luzaroan entzun ostean erabaki zuten taldea sortzea eta ondo pasatzea dute helburu nagusi. Hala ere, eta tesuinguru horretan ezin bestela ulertu, honako lan honetan amorru handiko kantak egin dituzte. Emaitza: ez dute erakunde ezta aginte-sinbolorik eraso gabe utzi. Gaztelaniaz abestutako 11

kantatan abiadura eta melodia, biak, batzen dituen punk-rocka egiten dute, nahiz eta baden ilunagoa edo rockeroagoa den piezarik ere. Horien artean, Evaristoren edo Vomito taldeko Victorren oihartzuna ere antzeman daiteke. Horrez gain, baina, *Txuri-Urdin* futbol ereserkia moldatzera ausartu dira, Donostiako txanponaren bi aldeak erakutsiz.

www.myspace.com/sutura

Sutura

«Taldeak ez digu inoiz buruko minik eman, gustuko dugu, gure ilusio handiena da»

No me despiertes (Ez nazazu iratzartu). Guztia hain gaizki egonda, zerk ematen dizue jarraitzeko animoa?

Abesti horretan azaltzen dugu guztia, esperantzak: zerbait gelditzen dela ikustek eta horren alde oraindik ere lana egin daitekeela. Taldeak inoiz ez digu buruko minik eman; gustuko dugulako egiten dugu, gure ilusio handiena da.



Donostiak inspiratzen zaituzte?

Bai, halako hiri bat Trintxerpera itsatsita edukitzeak uste baino eragin handiagoa du gugan. Pauso bakarrean txanponaren bi aldeak ikustea bezala da.

Realak ez ditu punkiak maite, baina zuek Realak bai. Zer da Realak zuentzat?

Oraindik ez gaituzte futboleko jokatzeko ikusi! Berdin dio punkyak garen edo ez. Baina ezin dugu ukatu realzale amorratuak garelako eta horregatik bertsioreneat dugula *Txuri-Urdin*.

«Kanpoan ez da ezer gelditzen, egia besterik ez». Zer da sinistu behar duguna?

Zuk ikusten duzuna da egia, beti ere manipulatzen ez bazaituzte eta beste zerbait ikusarazten ez badiuzte. Gu geu gara mundua hondamendira daramagunak, ez egin kasu esaten dizuetenari. ■

Trintxerpekoak zarete, crust-aren lurraldekoak, eta punka egiten duzue.

Crust-ekin oso harreman ona daukagu. Punka egiten dugu hori delako luzaroan entzun eta motibatu gaituena eta, neurri batean, egiten dakiguna. Punkaren barruan estilo desberdinak daude, baina guri haxe, zuzenena da irtetzen zaiguna.

Me cago, Amets ustelak... Hainbeste gorroto duzue Espainia?

Lehenengo kantan edozein nazio-

taz hitz egiten dugu, norberak nahiduen, ez dauka zertan Espainia izan, abestiak edozein estaturi kontra egin nahi dio. Bestalde, *Amets ustelak* kantak frankismoari abesten dio.

Beste gau bat kantan parrandazaleak ohartarazi nahi dituzue?

Norberak uneoro nahi duena egin behar du, norbera da horren erantzule osoa, baina bidean hainbeste jende galtzea oso gogorra da.